



BARREN
TOKIKOM

Planto!



STOCK FERIA

ELGOIBAR

MARTXOAK 9, LARUNBATA - 10:00ETATIK - 14:30ERA - MAIALAKO PARKEAN



LOKAL BERRIAK ALOKAGAI

Erretsundi, 1 - Elgoibar

943 531 644

Kanpoaldera ematen duten lokalak.
Interneterako instalakuntza.

Aire egokitua.

Gune eguzkitsua.

Aparkatzeko arazorik ez.

60m²



42m²



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ERRAUSTEGIA IRUZURRA!

Aste honetan jakin dugu Zubietan erai-
kitzen ari diren erraustegian, erraust litez-
keen hondakinen erdiak baino ez dituela
sortzen Gipuzkoak.

Zubietako erraustegiaren tamaina Gi-
puzkoak sortzen duen hondakinen kopu-
raren arabera dela argudiatu dute
aldundiko agintariak (200.000 tonako
ahalmena du erraustegiak). Joan den as-
tean, ordea, Aldundiako Ingurumen dipu-
tatu J.I. Asensiok emandako datuen
arabera, 2016ko prognosiak aurreikusi-
tako denak ez datoz bat errealitatearekin.
Diputazioaren arabera, Gipuzkoak
328.609 tona hondakin sortu zituen iaz,
prognosiak aurreikusi baino 118.000
tona gutxiago. Horietatik 141.612 tona
errefus moduan bildu zituzten udalek eta
mankomunitatek.

Gaur egun errefus hori Mutiloako za-
bortegira eta Bizkaiko tratamendu plante-
tara bidaltzen ari dira. Aste gutxira,
Zubietako instalazioetako TMB planta
martxan jartzen denean, hara bideratuko
dituzte. Tratamendu mekaniko biologikoa
eta bio-lehortzea aplikatu ostean,

141.612 tona horiek 101.246 bihurtuko
dira, eta horiek joango dira gero erraus-
tegitira. Prognosiak aurreikusi bezala, ma-
teria organikoen eta beste gaikako
bilketen errefusak gehituz gero, beste
9.000 tona inguru izan ditzake Zubietako
plantak. Araztegitako lohiak erraustea
ere aurreikusia dago (21.576 tona),
baina Europako zuzentarau berriak gala-
razi egin du horiek kudeatzea hiri honda-
kin moduan. Eta diputazioko agintariak
herrialdetik kanpoko zaborra inportatzeko
asmoa dutela ukatu dute.

Azkenik, aldundiak emandako datuen
arabera, hondakinen %52,4 birziklatzen
ditu Gipuzkoak gaur egun. Onartu berri-
den hondakinen plan berriaren arabera,
baina, 2030erako %70 birziklatzea dute
helburu. Matematikan ez naiz oso iaio,
baina zenbakiek ez dute ematen.

Erraustegia iruzurra!

A.I.

► ELGOIBARKO IZARRAKO EMAKUME LANGILEOK GREBA EGINGO DUGU

Elgoibarko Izarrako emakume langi-
leok bat egin dugu gaurko deitutako
grebarekin, iruditzen zaigulako emaku-
meok isilpeko lan handia egiten dugula
eta gure lanak ez duela behar besteko
aitortzarik. Greba egingo dugu gure
aurreko emakumeei zor dizkiegulako
gaur dauzkagun eskubideak eta guri
ere badagokigulako gure eta gure on-
dorengoen etorkizun hobeari baten
alde borrokatzea.

**Elgoibarko Izarrako
emakume langileok**



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Elgoibarko Izarraren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaldua Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Sorraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR
UDALA
KULTURAREN
BERTSULAK

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKO
1981



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Euskarazko hedabideen jarduera diruz laguntzeko hitzarmena aurkeztu dute

Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Hekimen elkarteak euskarazko hedabideen jarduera diruz laguntzeko eredu berri bat aurkeztu zuten astelehenean, Donostian. Hekimen-en izenean elkartearen koordinatzailea den Igor Astibia eta elkarteko kide diren Iban Arantzabal (Tokikom), Iban Arregi (Berria Taldea) eta Lorea Agirrek (*Jakin* aldizkaria) berba egin zuten. Administrazio desberdinen izenean berriz, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusiak, Ana de Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusiak eta Joseba Perez de Heredia Arabako Euskara, Kultura eta Kirol zuzendariak.

Marko berriak berrikuntza nabarmentzen ditu euskarazko hedabideentzat, denak ere hausnarketa luze baten ondorioz adostutakoak, besteak beste: Diru-laguntzetarako irizpide bateratuak izango dira EAEko lau erakundeen artean, eta guztien artean esparru honetara bideratuko den diru-poltsa 10,5 milioi eurokoa izango da, orain artekoa baino hiru milioi gehiagokoa. Horrez gain, hedabideen erabaki estrategikoak eta kudeaketa errazteko, egonkortasuna bilatu da, eta diru-laguntza deialdiaren epea hiru urtekoa izango da. Erakundeek urtero 10,5 milioi euro jartzeko konpromisoa hartu dute 2019-2021 epealdirako, horietatik Jaurlaritzak 7,8 milioi euro jarriko ditu. Hedabide bakoitzak jasoko duen laguntza kalkulatzeko oinarria bere gastuak izango dira, orain arteko puntuazio sistemaren orde. La-



guntzek gastu horren %30 arte kubritu ahalko dute.

Hekimenen datuak

Hekimen elkartearen garrantzia azpimarratzeko hainbat datu eman zituen Igor Astibia Hekimeneko ordezkariak: "Hekimenen baitan euskarazko 50 komunikabide baino gehiago biltzen gara (133 komunikazio proiektu), sektoreko ia komunikabide guztiak. Guztira 530 lagun baino gehiago ari gara lanean hedabide hauetan, asko egunkari, aldizkari, telebista eta irrati nazionaletan eta beste hainbat herri zein eskualdekoetan. Langile zuzen horiei 600 kolaboratzailek eta 1.000 boluntariok osatutako sarea gehitu behar zaie. Izan ere, euskarazko hedabideen sektorearen eskaintza anitza, zabala eta aberatsa da eta horri esker egunero milaka laguni euskaraz biziitzeko aukera ematen diegu. Euskal prentsa 200.000 kontsumitzaile baino gehiagorengana iristen da. Hala ere, gabeziak ere badituztela azaldu zuten, eta krisi garaian euskarazko hedabideen egoera zaila izaten ari dela nabarmentu zuten. "Sektorean lan-baldintzak

ere ez dira onak eta horrek lantaldeetan ezegonkortasuna eta ziurtasunik eza eragiten ditu".

Norabide egokian emandako lehen pausoa

Urte hauetan guztietan sektoreak hainbat eskari luzatu dizkio administrazioari, eta honek oraingoan sektorearen zenbait eskari historiko aintzat hartu dituela adierazi zuen Astibia. Norabide egokian emandako pausoa dela uste dute eragileek. Bi urteko prozesu honetan parte hartu duten guztiei eskerrak eman zizkien Astibia. Tokikom-eko ordezkariak, Iban Arantzabalek, diru-laguntza eredu berria tokiko hedabideen egonkortasuna bermatzeko ere garrantzitsua izango dela azaldu zuen. Ildo beretik mintzatu zen Hekimen elkarteko bazkide den *Berria*-ren ordezkaria, Iban Arregi, baina nazio mailako hedabideen ikuspegitik. Eta amaitzeko Hekimeneko bazkide den *Jakin* aldizkariko Lorea Agirrek hedabide espezializatuen ikuspegia eman zuten, eredu berria balioan jarri baina denborarekin hobetu beharreko puntuak ere badirela azalduz.

Udalak isuna jarriko dio Iza Obras y Promociones enpresari Aita Agirre kulturgunearen lanetan atzeratu egin direlako

Elgoibarko Udalak espedientea zabalduko dio Iza Obras y Promociones enpresari, ez dituelako bete Aita Agirre Kulturgunea egiteko obraren epeak. 2.391.252 euro + BEZ aurreakontua eta lanak egiteko hamalau hilabeteko epea zeukan proiektua aurkeztu zuen Iza Obras y Promociones enpresak, eta berari esleitu zitzaion lana. 2017ko udan hasi zituzten obrak, eta epeen arabera, urtaril erdialderako amaitu behar zituzten. Lanetan, baina, zailtasunak suertatu ziren eraikinaren atzeko aldean zegoen horma egoera txarrean zegoelako eta teilatua egiteko teila gehiago behar zirelako. Horren aurrean, Udalak epea luzatu zuen, baina luzapen epe hori ere amaitu da, eta obrak oraindik amaitu gabe daude. Obra esleitzeko oinarrietan jartzen du eguneko 0,20 euroko isuna izango duela enpresak, kontratuaren



1.000 euro bakoitzeko. Eguneko 476,65 euro + BEZ suposatuko dio enpresari atzeratzen den egun bakoitzeko.

Zuhaitz bat erori zen eguaztenean San Roken, haizearen eraginez

Ekaitza gogor sartu zen eguazten arratsaldean Eibar aldetik, eta haize bolada bortitzak ekarri zituen. Haizearen eraginez hainbat kalte izan ziren herrian. San Roke kalean zuhaitz bat erori zen, BH Institutu aurrean, hain zuzen ere, eta Pista Beltzaren goiko aldean beste zuhaitz bati hainbat adar erori zitzaizkion. Olasope inguruan, 634 errepide ondoan zegoen edukiontzi bat ere irauli zuen haizearen indarrak, eta trumoiaren ondorioz Artekaleko eskailera mekanikoak ere estropeatu egin ziren. Dena den, kalte materialak izan ziren soilik.



Astelehenean zabalduko du EHBildu-k lokal berria

Hauteskunde kanpainan erabiltzeko lokal berria inauguratu zuen Elgoibarko EHBilduk joan den barixakuan, eta datorren astelehenetik aurrera zabalduko dute herritarrentzat. San Frantzisko kaleko 11. zenbakian kokatu dute lokal berria, Anton altzari denda egon zen lekolean. Astelehen, eguazten eta barixakuetan egongo da irekita, 19:00etatik 20:00etara.

Stock feria antolatu du Txankakuak biharko

Herriko merkataritza txikiari bultzada emateko asmoz, stock feria antolatu du Txankakuak biharko. Maalako parkean egingo dute 10:00etatik 14:30era, eta herriko 19 establezimenduk hartuko dute parte. Txankakuako maskotak 11:30etik 14:30era ibiliko dira azoka gunean eta 14:00etan 600 euro zozketatuko dituzte erosketa txeketan. Ezinbestekoa da zozketa unean Maalan egotea saria jaso ahal izateko. Eusko Jaurlaritzaren babesarekin eta Elgoibarko Udalaren laguntzarekin antolatzen du Txankakuak Stock Feria.

Emakumeek* planto

Greba egitera deituta daude gaur emakumeak* [emakume gisa identifikatzeko modu ugari daudela irudikatzen du izarrak]. Emakumeen lanak gure gizartean duen eragina ikustarazteko eta lan hori aintzat hartu dadila eskatzeko deitu du grebara mugimendu feministak; emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egiten dela erakusteko. 24 orduko greba da gaurko antolatu dutena, eta bost ardatzetan oinarritu dute: ikasleak, enplegua, pentsiodunak, kontsumoa eta zaintza. Hala ere, azken horri, zaintzaren gatazkari, eman nahi diote garrantzia. «Bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa eskatzen dugu, pertsonen zaintza ez dadila zapalduon bizkar geratu», jaso dute grebara deitzeko oharrean. Izan ere, zaintza-lanak, ia beti, emakumeek betetzen dituzte. Datuek argi erakusten dute. Elgoibarren zaintza profesionalean ari direnengan jarri dugu begia guk. San Lazaro egoitzan, 52 bat langiletik lau ez beste guztiak emakumeak dira, eta Eguneko Zentroan, hamar langile daude guztira, emakumezkoak denak. Udalaren Etxez Etxeko zerbitzuan, berriz, bederatzi langile daude: zortzi emakume eta gizon bat. Zaintzari lotutako zikloetan 173 ikasle daude guztira Meka ikastetxean, eta horietatik 145 dira emakumeak: Haur Hezkuntzako goi zikloan (36/6), Erizaintza laguntzaile izateko zikloan (53/9), Gizartertze zikloan (24/6) eta Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arreta zikloan (32/7).

- AINARA ARGOTIA -

Elkarretaratzeak, gaur: **Elgoibarren**, 12:00etan eta 19:00etan, Kalegoen plazan. **Mendaron**, 12:00etan, Herriko Enparantzan.

▶ BRIGIDA IRIONDO

FARMAZILARIA

Autismoa duen 6 urteko umea zaintzeko, soldatapeko lana laga zuen Brigida Iriondok, eta umearen ikastola-orduetan, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa ikasten ari da Mekan, "emakumez inguratuta". Era berean, senide mendekoak zaintzen dihardutenentzako Matia Fundazioak Elgoibarren eskaini duen formazio-ikastaroan ere parte hartu du. Senideak zaintzeagatik Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen prestazioa jasotzeko ezinbestean egin behar dute ikastaro hori zain-tzaileek, eta hor egiaztatu du lehendik ere igarria zuena: emakumeek eusten diotela gaur egungo zaintza ereduari.



◆ Zer ikasi eta ikusi duzu ikastaroan?

Mendekotasuna duen senide edaderturen bat zaintzen ari direnentzako ikastaroa izan da, hein handi batean. Gai asko landu ditugu: adineko gaixoak hobeto zaintzeko argibideak eman dizkigute, zaintzarako dauden baliabide materialen eta diru-laguntzen berri eman digute eta zain-tzaileek geure burua zaintzen ikasteko jarraibideak ere eman dizkigute. Egun batean lagunekin afaltzera irtetzeagatik edo

“Besteen beharrei erantzuten, askotan geuk ere bizi bat dugula ahazten dugu emakumeok”

asteburuan bi orduz zinemara joateagatik errudun sentitzen gara emakume zaintzaileak eta erruduntasun-sentimendu hori uxatzeko erremintak jaso ditugu. Karga emozional handiarekin ikusi ditut senide adinekoen zaintzaz arduratzen diren emakume asko. 'Hemen bakarrik laga behar nauzu?' kargu hartzen diete gaixoeak, norberekeriz batzuetan eta gaixotasunak eragindako frustrazioen eraginez besteetan, eta gurasoen edo senide gertukoaren ahotik hori entzutea oso gogorra da. Bi orduko ikastaroan ere telefonoa ondoan hartuta egon dira batzuk, noiz deiren bat jasoko. Besteen beharrei erantzuten, askotan bizi bat dugula ere ahazten dugu emakumeok, eta ikastaroan, geure buruak zaintzeko denbora hartzea zein garrantzitsua den erakutsi digute, bai eta hori ez egiteak ekar ditzakeen arazoez ohartarazi ere.

♦ **Erruduntasun sentimendua aipatu duzu, emakumeei lotua. Gizon zaintzaileak ez dute sentitzen halakorik ala gizonik ez da izan ikastaroan?**

"Errudun" hitza emakumeen ahotik entzun dut nik beti. Lagunekin afaltzera iritetzeagatik edo bere gogoko gauzak egiteko tartetxo bat hartzeagatik gaizki sentitzen direnak emakumeak dira, eta horri buruz ere aritu gara hizketan. Ezagutu dut oraindik seme-alaba txikiak zituela aita zaintzea egokitu zitzaion emakume bat eta entzun diot esaten errudun sentitu izan dela, aita zaintzen eman zuen denboran seme-alaben haurtzaroa galdu zuelako. Pentsa! Ez dakit zergatik dugun kulpa sentimendu hori hain barneratuta emakumeok: berez arduratsugoak garelako edo hala egin gaituztelako. Iruditzen zait familiako mendekoen zaintzaz arduratzen diren emakume askok ez dutela aukeraterik izan. Aztertu beharko genuke zergatik garen gu, emakumeak, kopuru handiagoan ingurukoak zaintzen ari garenak, eta nola eta zein baldintzatan ari garen zaintzen. Gero, uste dut, ama izateak ere markatzen gaituela.

♦ **Zertan, edo nola?**

Erruduntasun sentimendu hori amei oso lotua ikusten dut. Gauza asko lagatzen di-

tugu albora, zaintzak ordu asko kentzen dizkigulako, eta ahalegin horrek, jakina, eragina du gure ekonomian ere. Gauza asko dira, baina datuek eurek ere erakusten dute errealitate bat. Gure prestakuntza saio hauetan hamabost bat lagun izan gara, bost ez beste guztiak emakumeak. Irakasleak esan digu pozik dagoela gero eta gizon gehiago ikusten dituelako adinekoak zaintzen, baina gehiago izanda ere, oraindik gutxiengoa direla. Taldean izan dugu 36 urteko gizon bat, 26 urte zituenetik ama zaintzen ari dena, baina halako kasuak atzamarrekin kontatu daitezke. Emakumeen gain erortzen da karga handiena. Eta lanak gizona eta bien artean banatuta ere, arduraren zama beti darama amak, alabak, erreinak...emakume batek, azken batean.

"Emakumeak arduratzen gara zaintzaz, eta horregatik ez da baloratzen, eta ordaindu gabeko lana denez, askorentzat lana ere ez da"

♦ **Zaintza ikusgarri egiteko beharraz bat egiten duzu hortaz.**

Dudarik gabe. Taldean terapia egin dugu eta oso lagungarria izan zaigu, baina konturatu naiz zaintzaren gaia eremu pribatua errenditu behar izaten dugula beti. Bada ordua zaintzaren gaia ikusgarri egiteko eta eremu publikora ekartzeko. Zaintza gaur ulertzen dugun moduan ulertzeak eusten du sistema hau, zaintzari duen balioa aitortuz gero, laster zelako jausi sistema!. Ikusi ditugu zernolako diru-laguntzak dauden ezintasunen bat duten pertsonen zaintzarako, eta negar egiteko modukoak dira. Nire semeak autismoa du, eta Foru Aldundiak 368 euro ematen dizkit hilean, baina urrutitik ere ez zait iristen behar dituen terapiak ordaintzeko. Gero esaten digute beste 400 bat euroko laguntza jaso dezake-

gula zaintzaile bat kontratatzeko, baina jakina, hortik 900 bat euro arteko gutxieneko soldatara artekoak norberak jarri behar ditu eta gizarte segurantzaren alta emateak eta abarrak ere norberak hartu behar ditu bere gain. Diru asko da. Ezagutu ditut ezinbestean ama eguneko zentroan sartu nahi eta ezin izan dutenak, amak 1.graduko ezintasuna duelako. Traba asko jartzen dira, eta hondoa jartzen dute emakume zaintzaile askok. Badakit ez dagoela denontzako lekurik eta gizartea zahartzen ari zaigula, baina horregatik beragatik ezinbestekoa da zaintzaren gaiaz gogoeta egitea, zaintzaren gaia politizatzea eta politika publiko sendoak diseinatu eta sustatzea. Zaintza afektibitatearekin lotzen da beti, baina zaintza lana da eta ordaina ezin da maitasuna bakarrik izan. Espiral bat da hau. Zaintzaren arduraren emakumeak gaude, eta horregatik ez da baloratzen. Eta ordaindu gabeko lana denez, gizon askorentzat lana ere ez da.

♦ **Nola irauli daiteke egoera hau?**

Batetik, baliabide eta diru gehiago jarri behar du administrazioak, eta bestetik, zaintzaileak zaintzeko taldeak sortu behar dira. Laguntza psikologikoa behar dute zaintzaileak eta herrietan egoera berean daudenak elkartzeko espazioak sortu behar ditugu. Errotik aldatu behar dira hemen gauza asko egoera hau aldatzeko. Oraindik ere gizonak gehiago kobratzen dute emakumeek baino, eta jakina, horrek ere eragiten du etxean gauzak okertzen direnean, lana emakumeak lagatzea beti, gizonak diru gehiago ekartzen duelako etxera.

♦ **Hein batean, adinekoen zaintzan dihardutenei zuzendutako ikastaroa izan da hau, baina zure egoera beste bat da. Zer du berdinetik? Zer ezberdinetik?**

Nire egoera beste bat da, bai, baina ikusi dut behar psikologikoa berberak dauzkagula denok. Ezberdintasun bakarra topatu dut taldekideekiko: eurek uste dutela hau bizitza-legea dela, eta nik ez dudala hala sentitzen. Ez dugu ahaztu behar guraso izateko adina atzeratzen ari dela, gi-

zartea zahartzen, gaixotasunak kronifikatzen eta hori denagatik, bueltan-bueltan denoi iritsiko zaigula hau. Urte askoko sakrifizioa da emakume zaintzaileek egiten dutena, eta zaintzen ari diren pertsona hori hiltzen denean, askok eta askok oso gaizki pasatzen dute, depresioan jausteraino ere bai, ez dakitelako bizitza zeri eskaini. Bada emakumea zaintzari lotzeko beste arrazoi bat ere eta hori ere esan behar dugu: emakumeak bizi-itxaropen luzeagoa du, eta normalean, adineko emakumeek nahiago dute zaintzailea ere emakumezkoa izatea, pudore kontuengatik.

♦ Zein da zehazki zure egoera?

Autismoa duen semea daukat eta

lana laga behar izan dut, umeak premia bereziak dituelako eta terapietara eraman behar dudalako. Autismoa dutenei ezinbestekoa zaie erreferente bat izatea, eta kostata topatu ditu semeak bereak: ni eta nire ama. Horregatik neuk laga nion lan egiteari eta amaren laguntzari esker, moldatzen naiz, gauza askori uko eginda, jakina. Esan dezaket, gainera, zortekoa naizela, nik, beste askok ez bezala, aukera izan dudalako soldatapeko lana uzteko. Baina hori bera, ni zorionekoa izatea, espantuzkoa iruditzen zait. 368 euro ematen dizkit Foru Aldundiak semearentzat. Diru hori beretzat da, eta hala ere, dituen behar guztietarako gutxi da.

Nahiko banu semea zaintzeko pertsona bat hartu, gainera, ezingo nuke familiako bat kontratatu, legez odol-ahaidetasunik ez duen pertsona bat kontratatzera behartua nagoelako. Adinekoen zaintza denean egin daiteke hori, baina seme-alaben kasuan, ez. Horrek amorrarazita nauka. Eta 400 euroko laguntza da, ez gehiago, baina hori ere ezin dut eskatu, nire semeak neu behar nauen arren. Autismoa duten umei ezin gataizkie ibili egunero erreferenteak aldatzen, eta nik lana laga badut, arrazoi horregatik laga dut. Askok pentsatuko dute kapritxo bat dela, baina ez, autismoa dutenen kasuan beharra da.

ITZIAR FERNANDEZ MENDIZABAL

Erretiratua, baina ekinean. Giza Eskubideen aldeko aktibista.

Duela bi urte kontatu izan balidate 2018ko martxoaren 8an ia planeta osoko milaka eta milaka emakume kalean egongo ginela, kontatu izan balidate ideologia orotariko emakumeak -eskuintzekoak edo ultraeskuinekoak izan ezik- kalera irtengo ginela, esan izan balidate ikasleak, pentsiodunak, etxeko andreak, lanean ari direnak eta langabeak, bollerak eta transak, ezkongabeak, dibortziatuak eta ondo ezkonduak, feministok eta "etiketa" hori gustuko ez dutenak, kalean elkartuko ginela pentsatuko nuen utopia batez ari zitzaizkidala, gogoa eta errealitatea nahasten, baina EZ!, kaleak eta hedabideetan normalean anekdota garen eremuak okupatu genituen. Ez ditut ahaztu nahi gure aldarrikapenekin bat egin eta ondora batzen ari zaizkigun gizonak, gero eta gehiago direnak bide batez esanda. "Bizitza erdigunean" jarri eta zaintzalanak, etxekoak eta esparru publikokoak -lanekoak zein jai girokoak- konpartitzeko prest daudenak.

Joan den mendeko 50.urtean jaiotako elgoibartar honentzat, "emakumeen askapenaren" alde -halaxe esaten genion orduan feminismoari- lanean ari ziren beste andre herrikide batzuekin haurtzaindegi bat sortzeko asmotan puerikultura ikastera herritik alde egin zuen honentzat, iazko M8a izugarritzko *subidoia* izan zen. Batzarretan eta kaleetan orduko emakume haien alabekin eta bilobekin jardutea, askapenerako laugarren olatu honetara batzea, izugarria izan zen.

Egiaztatu genuen badagoela erreleboa borroka honetan egon garen "loria zaharrontzat"; are gehiago, ondorengo belaunaldiek, batik bat gazteenek, sobera dituzte ideiak, uste irmoak eta gaitasuna, sistema honen egungo erronkak agerian jartzeko. Izan ere,

emakumeekiko diskriminazioak nabarmena izaten jarraitzen du arlo guztietan. Kapitalismo basatia beste kontinente batzuk espoliatzen ari baita, planeta jaten ari diren transnazionalen bidez; eta, beharbada, larriena da interesatzen zaien eskulana izan ezik -besteak beste, mendekotasuna duten gure senide edota lagunak zaindu edo erabat prekarizaturiko lanak egingo dituzten pertsonen eskulana-, bost axola zaiela pertsonen migrazioa. Europako Batasunarekin elkar hartuta ari dira, gainera, Mediterraneoan edo giza eskubideak zeharo zanpatuta dituzten Estatuetak mugetan hiltzen ari diren pertsonak salbatzea eragozten; nekropolitika erahiltzailea gauzatzen ari dira, eta gure inguruan arrazismoa eta xenofobia sustatzen dituzten gezurrak zabalitzen.

Honen guztiaren erdian, hunkitu egiten naiz, astelehenero, gure eskubideak aldarrikatzen ari garen pentsiodunok ikustean; horien artean ere, gehienok andreak gara. Pobreziak gogorren jotako kolektiboa gara, galdetu familia zabala zaindu behar izan zutelako kotizatu ez zutenei, alargunei -zeinek % 45 besterik ez duten jasotzen-, lanaldi erdira bakarrik lan egin dutenei lanaldi bikoitz edo hirukoitza zutelako... Adinekoak borrokalariak dira, askok makila behar badute ere ibiltzeko.

Espero dut biharko egun osoko greban elkar besarkatzea berriro guztiok kalean, gure eskubideak aldarrikatzen ditugun bitartean.



Eta gizonek, zer?

Emakumeak dira gaur grebara deituta daudenak, baina gizonek ere babestu dezakete greba. Gizonen ekarpena zein izan behar den argitzeko, gizonentzako gida plazaratu du Euskal Herriko mugimendu feministak. Hainbat puntu jaso dituzte gidan, baina labor esanda, zaintza lanez arduratzea da greba babestu nahi duten gizonentzako gaurko ardur nagusia, eta ez askok uste bezala, mobilizazioetan parte hartzea. Nolanahi ere, gizonen babesa ezin da egun bakarrera mugatu, berdintasuna denon kontua baita. Berdintasunaren aldeko Zipriz-tintzen Ermuko taldekoek argi dute hori, eta martxoaren 11n horri buruz arituko dira Elgoibarren, Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, antolatu duen hausnarketarako saioan. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da saioa, 18:00etatik 20:00etara, doan. Gizon zein emakumeak daude parte hartzera gonbidatuta, baina bereziki gizoni egin diete saiora gerturatzeko deia. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.



Gizonentzako gida

- ◆ **Aita bazara**, arduratu zaitetz zure seme-alabez, erraztu ezazu eztabaida (guraso elkartean, ikastetxean...) eta babestu ikasleen greba.
- ◆ **Laguna bazara**, zure lagunen umeak zaindu ditzakezu.
- ◆ **Lankidea bazara**, zabaldu eta babestu emakumeen* greba lantokian eta beharrezko balitz, eskaini zure burua gutxieneko zerbitzuak eskaintzeko; eman zure soldata mugimendu feministari edo erresistentzia kutxa antolatu lantokian.
- ◆ **Lantokiko nagusi bazara**, enpresan lan egiten duten emakumei* elkartasuna agertu eta errepresalia, traba eta arazoak saihestu.
- ◆ **Ikaskide bazara**, babestu eskolara joan behar ez duten emakume* irakasle eta ikaskideak, eta baita iragarritako lanuzteak ere.
- ◆ **Irakaslea baldin bazara**, ez pasatu zerrendarik martxoaren 8an. Gogoratu ikasleen hutsegitea justifikatuta dagoela: kalean gaude 'gu hiltzen ari dira' garraxika eta 'bizi nahi dugu' aldarrikatzen.
- ◆ **Familian**, elkarbizitza taldean edo inguru afektiboan zaintza behar duenik baldin badago, has zaitetz normalean emakumeek* betetzen dituzten lan horiez arduratzen: umeak zaindu, etxeko lanak egin...
- ◆ **Emakume batekin harreman sexu-afektiborik baldin baduzu**, emaziozu martxoaren 8an kalean egoteko behar duen laguntza.
- ◆ **Gizon militantea baldin bazara**, zabaldu mezu hau zure lagun eta talde guztien artean.
- ◆ **Ez kontsumitu**. Batu kontsumo grebara!
- ◆ **Martxoaren 8ko mobilizazio batera baldin bazoaz** (honek esan nahi du aurreko egoeretan zure bizitzan ez dagoela zure laguntza behar duen emakumerik*), jar zaitetz atzeko partean, ordenarik eman gabe eta manifestazioa zuzentzeko asmorik gabe, laguntzeko jarrerarekin.
- ◆ **Greba eta gero, zer?** Bildu zaitetz beste gizonekin, maskulinitatearen inguruan elkarrekin hausnartzeko, lan pertsonala eta kolektiboa egiteko, zuen pribilegioetatik kontzientzia hartzeko eta menderakuntzarik gabeko jendartea lortzeko bidean pausoak emateko.

Zaintza zerbitzua emango dute gizonek gaur Elgoibarren

Emakumei* greba egitea errazteko, 8 urtera arteko umeentzako zaintza zerbitzua eskainiko du gaur Elgoibarren gizon talde batek. Kultur Etxeko hitzaldi gelan sortuko dute zaintza espazioa, eta zaintzaileen artean hezitzaile tituludun lagunak ere izango dira. Hala ere, gaur euren kargu umerik ez duten gizoni ere dei egin diete laguntzera joateko, eta umeak zaindu behar dituztenei ere aukera eman diete gaur Kultur Etxera joateko, umeak hartuta.

▶ ANE ABLANEDO

IRAKASLE, PEDAGOGO
ETA HAUR PREBENTZIOAN
ADITUA

Irakaslea, pedagogoa eta haurren prebentzioan aditua da, besteak beste Ane Ablanedo (Iruñea, 1973) eta gurasoentzako formazio saioak eskaintzen ditu, haurren heziketan laguntzeko asmoz. Atxutxiamaikaren Kiribilduz egitasmoaren barruan, askatasunaren pedagogian oinarritutako tailerra emango du apirilean. Bi egunetako saioa izango da: Apirilaren 5ean, 18:00etatik 20:00etara, alde teorikoa azalduko du, eta 21:00ak arte pintxo-tertulia saioa egingo dute. Hilaren 6an, berriz, 10:00etatik 13:00etara egingo dute jardunaldia. Interesatuek martxoaren 11tik 17ra eman dezakete izena Elgoibarko Izarran (943 741 626).

- AINHOA ANDONEGI -



“Ez dugu nahi autoritarismoa, baina askatasunaren izenean ezin gara utzikerian erori”

♦ **Askatasunean hazi, hezi eta bizi formazio saioa emango duzu. Zeintzuk dira saioaren helburuak?**

Gurasoentzako saioa izango da eta saiatuko naiz azaltzen nolakoa izan behar den umeek merezi duten haurtzarora. Ez dut hitz egingo metodologia konkretu bati buruz, baina bai azalduko dut zer behar duten umeek sano hazteko. Horren erdigunean jarriko dut askatasuna, askatasunik gabe ez dagoelako ona den ezer, baina, noski, askatasuna ez da mugarik gabeko errealitate paradisiako bat. Saiatuko naiz azaltzen autoerregulazioaren eredu bat, eta askatasunean hezteko

oinarrizko printzipio batzuk ere emango ditut. Gurasoei ere segurtasun apur bat ematen ahaleginginduko naiz, gaur egun dena zalantzan jartzen delako, eta gurasoak askotan heldulekurik gabe geratzen direlako. Nik uste dut gurasoek badutela haurrekin egoteko eta haurrak hezteko sena, eta funtzio horretan segurtasuna ematen saiatuko naiz. Haurtzarook gizarterako eta bizitzarako duen garrantziaz ohartaraztea ere izango da saioaren beste helburuetako bat.

♦ **Askatasuna ez da mugarik gabeko errealitate paradisiako bat, esan duzu. Zer da orduan askatasunean hezteak?**

Nire formazio saioak askatasuna zer den definituz hasten ditut. Askotan uste dugu askatasuna mugarik eza dela, *nirvana* egoera, paradisua. Nahi duguna egitearekin erlazionatzen da askatasuna, eta sinismen hori baztertu egin behar dugu, mugarik gabeko errealitatek ez delako existitzen. Dena dela, muga batzuk egoteak ez du esan nahi askatasunik ez dugunik. Nik abiatu nahiko nuke saioa azaltzen zer den askatasunean bizitzea, hori ikasten dugunean jakingo dugulako zein den haurren bizitza askea eta orduan lortuko dugulako askatasunean hezteak. Mugak beharrezkoak dira, erabat. Ez da

posible haurrei eskaintzea mugarik gabeko ekosistema bat. Eta umetan haurren erreferente gurasoak direnez, gurasoei tokatzen zaie muga horiek jartzea. Muga fisikoak oso erraz ulertzen ditugu, adibidez ez genuke utziko ume bat kalean hotez edo mendian aske bera bakarrik. Babesera eramango genuke, hortaz, mugak jarriko genizkioke. Emozioekin zerikusia duten gaietan ere jarri behar zaizkie, umeak oraindik ezin dituelako emozio horiek kudeatu. Ulertu behar dugu askatasuna eta muga txanpon bera direla. Mugaren lehen funtzioa da guk zehaztea zein den haur batek bizitzaren adin bakoitzean kudeatu ahal duen errealitate-esparrua, eta berak aske kudeatu ahal izateko errealitate esparru hori, mugak jarri behar dizkiogu. Adibidez, ez genioke ume bati eskatuko bazkaria prestatzeko; muga jarriko diogu, badakigulako ez dela gai. Haurrei mugak ez jartzeak arduragabekeria erortzeko arriskua dakar. Ez dugu nahi autoritarismoan erori, baina askatasunaren izenean ezin gara utzikerian erori.

♦ **Autoritarismoa eta askatasuna aipatu dituzu. Ez bata eta ez bestea ez dira teknika egokiak. Non dago neurria?**

Autoritarismoa boterekeriarekin lotzen dut. Haurrak erraz manipulatu daitezke, eta beraiekin ia nahi dugun guztia egin dezakegu, eta pentsa hori zein arrisksua den. Haurrak gurasoari aitortzen dio autoritate, bera duelako erreferente, baina autoritate hori erabiltzen den momentuan haurrarekin zuk nahi duzuna egiteko eta zure proiektua beragan proiektatzeko, orduan erortzen zara boterekerian. Baina horrek ez du esan nahi beste muturrera joan behar garenik eta dena libre utzi behar dugunik. Heldu bezala erreferentzia gara berarentzat eta erreferentzia horrek esan nahi du momentu batzuetan guk hartu beharko ditugula erabakiak. Askatasunaren izenean ezin diogu umeari eman gauzak erabakitzeke ardura, oraindik ez dakielako gauza askotan erabakiak hartzen. Neurrian asmatu behar dugu, eta badakit ez dela erraza. Hori izango da ikastaroaren beste helburuetako bat. Ez

“Mugak segurtasuna ematen dio umeari eta errealitatea ulertzen laguntzen dio”

dut errezetarik emango, baina bai giltz batzuk, mugak jartzeko zereginen laguntzeko.

♦ **Esaten da baita ere haurrak ez direla zigortu behar, euren jarrerak ondorioak izan behar dituztela. Zein da zigor eta ondorioen arteko desberdintasuna?**

Heziketa eredu konbentzionalan orain ondorio esaten zaio beti zigor izan denari; eufemismo gisa erabiltzen da ondorio hitza askotan. Baina egia da ondorioa eta zigorraren artean badaudela diferentziak. Ondorioa da askatasunez zerbait erabaki eta erabaki horrek berezko ondorioak izatea, onak zein txarrak. Hori da askatasunaren printzipioetako bat. Haurrak, adibidez, lagunekin proiektu bat gauzatzeko konpromisoa hartu badu eta ez baditu bere lanak betetzen, agian lagun horiek ez dute gehiago berarekin proiekturik egingo. Eta hori bere jokabidearen ondorioa da. Zigorra, aldiz, instruktiboagoa da. Haurrak egin du zerbait gustatu ez zaidana, orduan egingo diot berari min egiten dion zerbait, ez dezan jarrera hori errepikatu. Ez dio utziko hori egiteari berak berez izan dituen ondorioengatik, baizik eta kanpotik ezarri zaion zigor hori berriro ez sentitzeko. Desberdintasuna argia da. Jokabideak berez ditu ondorioak, eta zigorra beste batek eragindako kaltea da, deskarga elektriko txiki bat ematea modukoa.

♦ **Gurasook ere sarritan gauzak ez ditugu ondo egiten, baina umei ondo egiteko eskatzen diegu. Beharrezkoa da umei eskatu aurretik gure okerrak zuzentzea?**

Ñabardura bat egin nahi nuke ondo edo gaizki kontzeptuetan. Gauzak ez daude ondo edo gaizki, gauzek ondorioak dituzte. Gauzak kuestionatu egin

behar ditugu, baina bai, haurren heziketan koherentzia ezinbestekoa da. Iruditzen bazaizu umearentzat ez dela ona mugikorrarekin ibiltzea, zergatik ibiltzen zara zu? Garrantzitsua da gure jarrerak aldatzea, eredia delako egiten duguna. Umeek egiten duguna ikasten dute, eta ez esaten duguna. Mila aldiz esan ditzakegu gauzak, baina egiten dugunarekin ez bada koherente, haurrak ez du ikasiko. Alkoholarekin esaterako, nerabezaroan esaten zaie txarra dela, ez edateko, eta gero ospakizunetan eta momentu goxo guztietan presente daukagu alkohola. Adinean aurrera joan ahala inkoherentziak ulertzeko gaitasun gehiago dute, baina umeen hezkuntzan koherentzia ezinbestekoa da. Bizitzaren alor guztietan da beharrezkoa koherentzia. Mugak ezartzerakoan muga horiek barneratzeko denbora bat hartzea garrantzitsua da. Ume bati egun batean esaten badiozu zerbait ez egiteko, baina kasketa hartu duelako uzten badiozu egiten, umeak erreferentzia galtzuko du. Mugak hormak bezala irudikatzen ditut: haur batek horma horren kontra kolpea hartzen badu, badaki hor muga dagoela eta hirugarren kolperako ikasiko du hortik ezin dela pasatu. Baina hurrengo egunean horma hori pixkat mugitzen badugu, edo kentzen badugu, ezinegona sortuko dio umeari eta ez du ikasiko. Mugak segurtasuna ematen dio umeari eta errealitatea ulertzen laguntzen dio.

♦ **Gomendioren bat umea askatasunean hezteko?**

Heziketa eredu konbentzional batetik gatozenez, behar izaten dugu besteek esatea gauzak nola egin behar ditugun, baina nik ez dut errezetarik ematen. Dena dela, pauta batzuk eman ditzaket: batetik, giza garapena ezagutzea garrantzitsua da. Hau da, haurri bizitzaren fase bakoitzean zer eskatu ahal zaion eta zer ez ezagutzea. Horrek asko laguntzen du mugak jartzen. Bestetik, senari kasu egin behar zaio. Gizakiak gara, eta senez, intuitiboki prestatuta gaude haur txikiagoak hezteko, eta senari kasu egiten jakin behar dugu.

INAUTERIAK ARGAZKITAN

Bideo eta argazki gehiago: www.barren.eus







Elgoibarko Kultur Etxean kokatuko dute PuntuEus Fundazioaren egoitza nagusia

A ne Beitia Elgoibarko Udaleko alkateak eta Iñaki Goirizelaia PuntuEUS Fundazioaren lehendakariak hamar urterako hitzarmena sinatu zuten astelehenean, PuntuEUS Fundazioaren egoitza nagusia Elgoibarko Kultur Etxean kokatzeko. Elgoibarko Udalak Kultur Etxeko lehenengo solairuko 100,82 metro koadroko azalera duen gela bat lagako dio Fundazioari, gaur egun Udaleko Kultura eta Euskara Sailek erabiltzen dituzten bulegoak, alegia. Aita Agirre eraikina eraberritzeko lanak bukatzen direnean, Euskara eta Kultura Sailak hara eramango dituzte eta orduan etorriko dira PuntuEUSekoak Elgoibarrera.

PuntuEUS Fundazioa 2012an sortu zuten, Donostian, ICANNen aurrean .EUS domeinuaren eskaria aurkezteko. 2014an domeinua errealitate bihurtu zenetik, .EUS kontrolatu eta administratzeko ardura duen erakundea da. Aurten beteko dira 5 urte lehenengo .EUS webguneak



sareratu zirenetik, eta gertu dago 10.000 domeinu-izen lortzea. Ingurune digitalean euskara lehen mailako hizkuntza izan dadin egiten du lan PuntuEUS Fundazioak, eta euskara ingurune digitalean baliagarri, erabilgarri eta ikusgarri egitea du helburu nagusia.

Kokapen berri honi esker, egiten duen lanak Elgoibarko herrian eragina izatea nahiko luke PuntuEUS Fundazioak. "Helbu-

ria da Elgoibarko eragile eta herritarrekin elkarlanean ingurune digitalean eragitea, euskararen erabilera sustatzeko", azaldu zuten Goirizelaiak. Abiapuntu gisa, Elgoibarko Izarrarekin eta Elgoibarko Udalarekin elkarlanean, 11. *Euskara ala Ezkara* jardunaldia antolatzen parte hartuko du PuntuEUSek. Euskarari eta euskal kulturari lotutako jardunaldiak ingurune digitalean izango du ardatz aurtengo edizioan.

Orri markagailuen lehiaketak baditu irabazleak

Gotzon Garate Udal Liburutegiak orri markagailuen lehiaketa antolatu zuen, eta dagoeneko jakinarazi dituzte irabazleak: Irati Uzquidun, Aitana Luque eta Ortzi Rodriguez. Antolatzaileek esan dutenez, jende askok hartu du parte, eta Gemma Monreal eta Paula Heras epaimahaikideek lan handia euki dute irabazleak aukeratzeko.



Idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak, Kultura, Euskara eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez, 8 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzendutako idazlan lehiaketa antolatu du, ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko helburuarekin. Interesatuak martxoaren 15a arte izango dute parte hartzeko aukera. Sari moduan 50 eta 120 euro bitarteko 26 bono banatuko dituzte, Elgoibarko dendetan gastatzeko.

Materialak berritzeko ikastaroa

Eskuz Artisanu Elkarteak material desberdinak berritzeko ikastaroa eskainiko du. Altzariak, oihalak edo bestelako material zaharrak berri eta konpontzen ikasteko aukera egongo da. Astearte eta ostegunetan izango dira saioak, Pedro Mugurtzako eskoletako lokalean. Bi ordutegi egongo dira aukeran: 15:00etatik 17:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak 615 764 337 telefonora deitu behar dute izena emateko.

Egañatarrak nagusi Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketan

La Union ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta, ehiza xeheko Elgoibarko txapelketa jokatu zuten, martxoaren 3an, Arabako Zanbrana herriko ehiza barrutian. Gizonezkoetan Arkaitz Egañak irabazi zuen proba, sei eper ehizatuta. Iraitz Txurruka sailkatu zen bigarren postuan, hau ere sei eper ehizatuta. Carlos Condek egin zuen hirugarren lau eper eta galeper bat ehizatuta. Emakumezkoetan Leire Egaña gailendu zen, lau eper eta faisai bat ehizatuta. Beteranoetan Joxe Mari Egaña izan zen onena, bi eper ehizatuta. Honenbestez, egañatarrek eskuratu dituzte jokoan zeuden hiru txapelak, iaz gutxiagatik lortu ezin izan zutena. Senior gizonezkoetako lehen hiru sailkatuak, beteranoetako lehen biak eta Leire Egaña Debabarreneko Ehiza Xehe Txapelketa jokatzeko sailkatu dira. Irailean jokatuko dute. Arkaitz eta Leire Egaña neba-arrebak dira egungo Debabarreneko txapeldunak.



Morkaikoren Eguna auzolanean prestatu nahi du Morkaikok

Maiatzaren 11n egingo den Morkaikoren Eguna antolatzeko boluntarioak behar ditu mendi taldeak. "Morkaikoko zuzendaritza hasita dago lanean, baina beti dago esku gehiagoren beharra, eta egin beharrekoak auzolanean egitera animatu nahi ditugu bazkideak eta herritarrak", azaldu dute. Lan batzuk egunean bertan egitekoak izango dira (bazkarirako prestaketak eta ondorengo garbiketak, umeentzako rokodromoan zaintza lanak...) eta beste batzuk aurreko egunetan egingo dituzte, besteak beste, Elgoibarko Itzuliko eta Itzultxoko bidea markatzea, izen emateekin lagundu, erosketak jaso eta gorde, e.a. Morkaikok 11 lan-taldetan banatu dituzte egin beharrekoak eta boluntarioek aukeratu ahal izango dute horietako zeinetan parte hartu. Izena emateko edo informazio gehiagorako Morkaikoren egoitzara jo behar da, eguaztenetan, 19:00etatik 20:30era. E-postaz (morkaiko@morkaiko.eus) eta telefonoz (637 91 41 06 – 670 09 41 58) ere jarri daiteke eurekin harremanetan.

Elgoibarren hasi eta bukatuko da Gipuzkoako 50. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa

Urrezko ezteiak beteko ditu aurten Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketak, eta ekitaldi bereziak antolatu dituzte 50. urteurrena ospatzeko. Zenbait udal eta komertzioen laguntzarekin eta babesarekin lau txapelketa berezi antolatu dituzte. Aretxaba-



letan jokatu zuten aurrenekoa martxoaren 2an. Lasturren izango da hurrengoa maiatzaren 18an, Aiastiako bola-tokian jokatuko dute hirugarrena, irailaren 21ean, eta azkena, Leintz Gatzagan jokatuko dute, abenduaren 15ean. Gipuzkoako txapelketak, berriz, 11 jardunaldi izango ditu, eta horietako bi Elgoibarren jokatuko dira, lehena eta azkena, hain justu ere. Martxoaren 23an jokatuko dute lehen jardunaldia Idorben. Ekainaren 1ean jokatuko dute azkena, Aiastian. Lehendakari Saria egongo da jokoan eta txapelketari amaiera emateko bazkaria eta urtero egin ohi duten omenaldia ere Aiastian egingo dituzte.

Igerilekuak handitzeko proiektua onartu dute

Olaizaga kiroldegiko igerilekuak handitzeko proiektua aho batez onartu zuten azken osoko bilkuran. Akordioan jasota dagoenez, 3.895.175 euro (BEZ barne) bideratuko ditu Udalak, eta lanak bukatzeko hamalau hilabeteko epea izango du obrak egingo dituen enpresak. Lanak irailean hastea aurreikusten dute.

June Loidi nazioarteko txapelketa bat jokatzera deitu du Espainiako selekzioak

Espainiako eskubaloia selekzio nagusiaren deia jaso du June Loidik (Elgoibar, 1999), aurreneko aldiz nazioarteko txapelketa bat jokatzeko. Espainiako taldeak aurten Japonian jokatu den Munduko txapelketarako kanporaketa jokatu du Islandiaren aurka, maitatza bukaeran, eta kanporaketa hori prestatzeko jokatu du XXIII. Nazioarteko Eskubaloia Txapelketa, martxoaren 21etik 23ra, Palentzian. Espainiak Brasil, Serbia eta Suitza izango ditu aurkari. Teledeporte kateak zuzenean emango ditu Espainiaren partidak. Carlos Viver hautatzailearen deialdiko berrikuntza nagusienetakoa da Loidi. Urtebeteko epean egin duen hazkundea oso azkarra izan da: iazko maiatzean, jubenil mailako Espainiako Eskubaloia Txapelketa jokatu zuen Tecnifuelle-ekin Olaizaga kiroldegian. Denboraldi amaieran emakumeen eskubaloiko goreneko mailan diharduen Barakaldoko Hotel Gran Bilbao Prosetecnisa Zuazo taldeak fitxatu zuen. Joan den abuztuan jubenil mailako Munduko Txapelketa jokatu zuen Espainiako selekzioarekin, Polonian. Denboraldi honetan, berriz, Espainiako selekzio nagusiaren deialdietan sartzen hasi da Loidi, 2021ean



Espainian jokatu den Munduko Eskubaloia Txapelketa jokatzeko aukerak izan ditzaketen jokalaririk gazteenekin lan egin nahi baitu Viver hautatzaileak. Loidik saio horietan eginiko lanak konbentzitu egin du Viver, eta nazioarteko txapelketa bat jokatzeko deialdian sartu du, aurrenekoz.



Mintxetako atletak pozik, Anoetako belodromoan lorturiko emaitzekin

Mintxeta atletismo taldeko hainbat neska-mutil Anoetako belodromoan lehiatu ziren joan zen zapatuan. Jakintza klubak antolatua zuen txapelketa eta atletak euren proba gogokoenean parte hartzeko aukera izan zuten. Mintxetatik jakinarazi dutenez, Elgoibartik Donostiara joandako atletak pozik daude lortu zituzten emaitzekin. Gainera, esperientzia polita eta aberagarria izan zaie Anoetako belodromoan moduko pista batean lehiatzea. Proba batzuetan ez zen sailkapenik egon. Sailkapenak kontutan hartu zituzten probetan, luzerako jauziko irabazi zuen Ane Agirregomezkortak, lau metro eta 10 zentimetroko jauzia eginda. Mintxetako atletak lorturiko denborak eta markak barren.eus webgunean. ikus ditzakezue.

Pilota Eguna, bihar

Elgoibar Ikastolak antolatzen duen Pilota Eguna egingo dute bihar (martxoak 9). Ikastolako 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutilek parte hartzen dute urtero ikastetxean antolatzen duten pilota txapelketan. 22. ekitaldiko finalera sailkatu diren bikoteek Kalegoen plazako frontoian (euria egingo balu, Ikastolan) jokatu dituzte finalak bihar, 10:30etik aurrera. Hamahiru partida jokatu dituzte, 12 tantora.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke. Garbiketarak ere egiten ditut. Orduetegi malgu, berehala hasteko prest.
☎ 615 526 482

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke. Esperientzia. ☎ 632 679 710

Adinekoak zainduko nituzke. Titulazioa eta esperientzia ditut.
☎ 628 529 252

Assegunetan garbiketarak egiteko eta asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 643 464 072

Edozein lan egingo nuke.
☎ 643 781 722

Lan bila nabil. ☎ 602 323 088

Ostalaritzan egingo nuke lan. Esperientzia handia. ☎ 602 117 009

Umeak edo adinekoak zaindu edo etxeko garbiketarak lanak egingo nituzke, orduka nahiz etxeko langile moduan.
☎ 643 374 471

Adinekoak zaindu eta garbiketarak egiteko prest nago. ☎ 650 393 576

Etxeak garbitzeko prest nago. Orduka. ☎ 602 620 907

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 631 995 976

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 632 452 026

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarak egiteko prest nago. Berehala hasteko moduan. ☎ 631 063 561

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 631 470 506

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak eta lisaketarak lanak egiteko prest nago. ☎ 632 642 350

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak eta lisaketarak lanak egiteko prest nago. ☎ 631 145 986

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 632 356 066

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarak egiteko prest nago. Orduka eta jardunaldi erdian. ☎ 677 895 202

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarak egiteko prest nago. Lorezain jarduteko edo txakurrak paseatzeko ere prest.
☎ 697 820 143

Adinekoak zainduko nituzke. ☎ 631 714 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan. ☎ 644 558 390

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko prest. ☎ 622 153 750

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko prest. Esperientzia eta malgutasun osoa. ☎ 631 980 741

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 476 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 574 783

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 906 590

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. ☎ 631 906 590

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Umeak zaindu eta garbiketarak lanak ere egingo nituzke. ☎ 632 796 081

Adinekoak zaindu eta garbiketarak egiteko prest nago. Ospitaleko zaintzarak egiteko ere prest. ☎ 631 822 545

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 602 814 756

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 655 094 780

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 678 112 785

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Ospitalean gauak pasatzeko prest. ☎ 685 185 462

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketarak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 669 894 049

Orduka lan egiteko prest nago. ☎ 693 673 904

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 796 081

Adinekoak zainduko nituzke. Beharrezko titulazioa daukat. ☎ 632 729 261

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean gauak ere pasatuko nituzke. ☎ 631 822 545

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketarak lanak egiteko prest nago. Orduka, arratsaldean. ☎ 689 003 537

Adinekoak zainduko nituzke. Beharrezko titulazioa daukat. ☎ 632 470 388

Adinekoak zainduko nituzke. Beharrezko titulazioa daukat. ☎ 632 470 388

Adinekoak zainduko nituzke. Beharrezko titulazioa daukat. ☎ 602 369 680

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 064 889

Eskaintza

Debako taberna batean lan egiteko zerbitzari euskalduna behar da.
☎ 606 727 876

ETXEBIZITZAK.....

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 631 637 966

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 677 259 560

BESTELAKOAK.....

Haritz dantza taldekoek jantziak uzten dituzte, baina gero askok ez dizkiete bueltatzen. Norbaitek etxean dantza taldeko erropak baditu, merkatu plazako lokalera eramateko eskatu dute.
☎ 686 633 178

Txabola bat alokatu edo erosiko nuke, lursail txiki batekin.
☎ 646 225 465

GARAJEAK.....

Garajea salgai San Roke 1 Oean, Kiroldegi ondoan. 20m². Ateak 2,25 metroko altuera dauka, eta barruan altitilo bat egiteko aukera. Kotxe handi edo furgonetarentzat egokia.
☎ 669 894 049



Garaje itxia alokairuan San Roke 16-18an. Anbulatorioko igogailuaren ondoan. ☎ 655 720 570

administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Entidad Pública Administrativa con carácter Económico



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Errentan bizi naiz, eta bizi naizen eraikinaren teilatua hondatuta dago. Horregatik, itokinak dauzkagu etxean. Behin baino gehiagotan ohartarazi diot jabeari, baina hark komunitateko presidentearengana bidali nau beti, berak ezin duela ezer egin arazoituta. Duela egun batzuk, horrenbeste alditan esan niolaita, presidentea etxera etorri zitzaidan zer geneukan ikustera, baina ez zuen itokinak konpontzeko konpromisorik agertu. Jakin nahi nuke zer egin dezakedan.

Alokairuan egonda, zuk zeuk ez daukazu inolako lotura juridikorik komunitatearekin, etxejabearekin baizik. Ugazabarekin daukazu hitzarmena lotuta zuk. Beraz, haren kontra baino ezin duzu egin, eraikinaren jabetza horizontalari lotutako kontuak etxebizitzaren, lokalen, garajeen, trastelekuen... jabeai eragiten dielako.

Ondorioa: Errentan dagoenak ez dauka titulu juridikorik jabeakideen komunitateari ezer eskatzeko. Eraikineko elementuren baten jabeak baino ezin du egin hori. Hala ere, etxejabearen betebeharrak nagusia da alokairuan emanda daukan etxea bizitzeko baldintza duinetan izatea, eta zuk diozun kasu honetan ez du bere betebeharrak betetzen, hezetasun-arazoez bizitzeko baldintza egokiei zuzen-zuzenean eragiten dietelako.

NORFO



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Mikel**, 10 urte bete dituzulako. Familiako guztion partez. *Guapisimo!*



Zorionak, **Maite**, zure 8. urtebetetze egunean. Ondo pasa eta muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Aner!** Zapatuan 3 urte! Ondo pasa zure eguna! Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Iuren!** Igandean 9 urte! Merendola mar-tan daukagu da-goeneko. Muxu potolo bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Oinatx**, gaur 8 urte bete dituzulako. Muxu bat lagunen eta arreba Iraiaren partez.



colchoneria textil hogar

KALITATE HANDIENEN ATSEDENEAN ESPEZIALISTAK

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

LASTAIRA %100 NATURALA



...TERXY QUERCUS

Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Leopaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ardua hartzeko.

IKASBAI
AKADEMIA
IKASGO
ACADEMY

IKASBAI
AKADEMIA
KLASE PARTIKULARRAK

667 261 248
(Leire)

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademialelgoibar@gmail.com

RFPS 183112



40.
urteurrena
UZURI
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

➤ Martxoko eskaintza:

MARTXOKO ESKAINTZA

AUDIFONO DIGITALAK

850€

EU txartela

prezio originala ~~1580€~~

Optika audio eta Targueta audio

➤ Martxoko zozketa:

3 haurren eguzkitako betaurrekoak
Ray ban, Bollé eta Hugo Conti markak





Aurreko hilabeteko saritua:
Mana Pia Salegi

9 ZAPATUA

10:00 Stock Feria. Txankakuak antolatuta, Maalako parkean.

10:30 Pilota Eguna. Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazako frontoian.

16:00 Euskadiko Txirrindulari Ginkana, Lagun Taldeak antolatuta. Maalako parkean. (Euria egiten badu, Ikastolako frontoian).

10 DOMEKA

12:30 Dokumentala: 'Raid Pandemonium'. Jairo Berbelek egindako dokumentala, Herriko Antzokian. Sarrera: 2 euro.

16:00-18:00 Buruarinak egiteko tailerra. Mendaroko ludotekan LH4, 5, eta 6. mailakoentzat. Doan. Izena emateko: 688 818 461.

12 MARTITZENA

18:00 Tailerra: 'Irakurri aurretik, irakurri'. Haur txikien gurasoentzako. Elgoibarko Udal Liburutegian.

13 EGUAZTENA

19:00 Inazio Bereziartua musika eskola-koen dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

14 EGUENA

19:00 Inazio Bereziartua musika eskola-koen dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

15 BARIXAKUA

23:00 Kontzertua Gazte Asanbladak antolatuta, Sutegixan (Gaztetxean). Sarrera, 6 euro. Pitxintxun erosi daitezke sarrerak.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoak 8, 9, 11, 13, 15 eta 20

8 BARIXAKUA

12:00 eta 19:00 Elkarretaratzea, Uluka batukada taldekoen laguntzarekin. Kalegoen plazan.

12:00 Elkarretaratzea. Mendaroko Herriko Enparantzan.

9 ZAPATUA

9:30 Emakumeentzako auto-defentsa tailerra. Olaizaga kiroldegian.

12:30 Kontzertua: Sustrai akordeoi taldea. Kultur Etxeko sotoan.

15:00 Emakumeen bazkaria, Sigma jatetxean.

20:00 Ipuin musikatua, helduentzat. Kultur Etxeko sotoan.

11 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketarako saio mistoa: 'Berdintasuna

denon kontua da'. Zipriztintzen, Berdintasunaren Aldeko Ermuko Gizon Taldea. Loredi Salegik gidatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

13 EGUAZTENA

17:30 Estibaliz Gonzalez ipuin kontalaria, Mendaroko Ludotekan.

15 BARIXAKUA

21:30 Zine foruma: 'Las sufragistas'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

20 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: "Adinekoentzat tratu onak". Maria Jesus Goikoetxeak emango du, gaztelaniaz. Musika Eskola auditoriumean.

SIEMENS WM12N260ES
ARROPA GARBIGAILUA



409€

iQdrive motorrak, 10 URTEKO BERMEA
A+++ / 7kg-ko karga
1200 r.p.m. / Display LED

BALAY 3SC187B
ARROPA LEHORGAILUA



489€

Hezetasun neurgailua
B maila energetikoa
8kg / Display LED

COMBI
SAMSUNG
R37J5325WW



699€

0° FRESH GUNEA
Baru aldean Led argiztapena
A++ / 387 litroko karga / No frost
200,6 zm-ko altuera

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
8 BARIKAKUA	9 ZAPATUA	10 DOMEKA	11 ASTELEHENA	12 MARTITZENA	13 EGUAZTENA	14 EGUENA	15 BARIKAKUA
Egunez Etxeberria	Egunez Fernandez Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia
* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00 Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar) 943 820 498	

Zinea (Herriko Antzokian)

'The old man and the gun'

8 barixakua: 21:30

9 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

10 domeka: 19:00

11 astelehena: 21:30

'Uno más de la familia'

10 domeka: 16:30

'Petra'

(Ongarri zinekluba)

14 eguena: 21:30

Otsaileko hildakoak

- **Maria Martinez Gomez**
90 urte, otsailak 2
- **Maria Paz Alvarez Rubio**
91 urte, otsailak 5
- **Manuela Molina Blanco**
89 urte, otsailak 6
- **Jose Viñaras De Pablo**
75 urte, otsailak 6
- **Arantza Berasaluze**
San Martin
59 urte, otsailak 8
- **Carmen Vieitez Calviño**
90 urte, otsailak 8
- **Conso Aba Pedron**
87 urte, otsailak 11
- **Carmen Flores Molina**
77 urte, otsailak 12
- **Manuel Espin Rodriguez**
56 urte, otsailak 13
- **Mari Carmen Garmendia**
Lasa
94 urte, otsailak 21
- **Maria Eugenia Etxeberria**
Mendizabal
85 urte, otsailak 25



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberrria.com
www.funerariaetxeberrria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Urazandi auzora iristeko irisgarritasun arazoak daude:

“Urazandi auzora iristea ez da erraza, batez ere, ume-aulkiekin doazenentzat, erosketa karroarekin edo gurgildun aulkian daudenentzat. King-Kong zubian eskailerak kendu zituzten irisgarritasuna hobetzeko asmoz, baina zubi zati horrek aldapa handiegia dauka orain, eta ez da batere eroso tarte horretan ume aulkari edo gurgildun aulkari bultza egitea, eta jaisterakoan ere kontu handiz ibili behar izaten gara, bereziki, euria egiten duenean. Entzun genuen Pilarreko zahar etxea egiteko obrarekin batera zubi berria egingo zutela, baina Pilarreko obra geldirik dago, eta uste dugu zubi hori berritu beharra dagoela. Maalako aldetik ere, ez da erraza Urazandira igotzea, fundizioa zegoen gune horretan ere sekulako aldapa dagoelako. Enpresa artetik King-Kong zubia amaitzen den inguru horretara joateko aukera badago, gero han eskailera mekanikoak hartzeko, baina tarte horretan espaloiak oso estuak dira, eta ez daude prestatuta ume-aulki edo gurgildun aulkiarekin ibiltzeko. Eta auzoan eskailera mekaniko asko egin dituzte, baina horrek oinezkoei soilik lagundu die irisgarritasunean, ume-aulkiak eta gurgildun aulkia ezin direlako eskailera mekanikoetan ibili. Urazandi auzoa Udalak ahaztuta daukala iruditzen zaigu. Espaloiak ere zaharrak daude, eta euria egiten duenean, oso irristakor jartzen dira; Herri Eskolarako autobusak ere arazo handiak izaten ditu ikastetxera iristeko, eta gainera, auto pila bat gaizki aparkatuta egoten dira. Jakin nahiko genuke Udalak zein asmo edo zein proiektu dituen Urazandi auzoa hobetzeko.

Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziarekin jarri gara harremanetan, eta ondorengo erantzuna eman du: “Urazandiko espaloietan eta irisgarritasunak askotariko zailtasunak dituzte. King-Kong zubiko eskailerak auzotarren eskaerei erantzuteko eta irisgarritasuna hobetzeko asmoarekin kendu ziren duela zenbait urte. Aurreko urtean irisgarritasun plana idazten amaitu genuen, eta plan horren arabera, Urazandiko irisgarritasuna hobetzeko (igogailuak jarri adibidez) hainbat modu aztertu genituen, eta horiek lantzen ari gara orain. Irisgarritasun plana idatzi zuten arkitekto berberak ari dira eraberritzea planeatzen; fasez-fase, epe motzean, auzo guztia egin ahal izateko



Aizkorri kaleko pila-edukiontzia hondatuta dago: “Orain dela hainbat aste pila-edukiontzia hondatuta agertu zen gure auzoan, eta oraindik horrela jarraitzen du. Eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea”.



Noiz itxiko dute Trenbide kaleko zuloa? “Aita Agirre eraikineko obrak direla eta, Trenbide kalean lurra zulatu zuten, baina hilabete inguru bada obra geldirik dagoela; guk behintzat ez dugu aspaldi inor ikusi han lanean. Ipini duten zirkulazio modua ere txarra da, garajetik irteteko maniobrak egin behar izaten ditugulako sartu eta irteteko. Kotxe eta kamioientzat ere ez da erraza kale horretatik pasatzea, eta istripu txikiren bat ere egon da”. Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziak esan duenez, Industria Sailaren oniritzia jaso arte ezin dute zuloa itxi, baina uste du aste honetan bertan izango dela.



Angel Mari Casado Rebollo

2019ko martxoaren 4an hil zen, 56 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Santiago Carrascosa Camacho

2019ko martxoaren 4an hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko



I. URTEURRENA

Felix Arregi Bastida

2018ko martxoaren 11n hil zen.

*Izan zarenagatik isladatuko ditut
nire barnean landatutako haziak.*

Eskerrik asko, aita.



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112

Gremioen gida

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERIA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, behe B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ONGI iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

TELLABIDE
ITURGINTZA

Azpilgoeta, 7 behe - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzalellabide@hotmail.com

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santana.iturgintza@gmail.com

ARROZTEGIAK

BIENA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

f

Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547

MAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com

f

iraolagoitia
arroztegia · altzariak · ehe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Aroztegia · Carpinteria
ASIMA
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

LEIHOAK

LODOSO
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

Hércules

658 710 898

Iturgintza
■
Aroztegiak
■
Izurrien kontrako
tratamenduak
■

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Urruzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

Leihoak
■

Pintura
■

Elektrizitatea
■

Igeltseritza
■